

BIZKAIKO IGEEN BETEBEHAR FISKALAK



bigē 

Bizkaiko guraso
elkartea

AURKIBIDEA

| | |
|---|---|
| Kontuan hartzekoa | 2 |
| Aurkezpenak | |
| - 036 eredua | 3 |
| - 347 eredua | 3 |
| - 110 eredua - Lan etekinen gaineko atxikipenak | 4 |
| - 190 eredua - Lan etekinen gaineko atxikipenak | 4 |
| - 200 eredua - Sozietate zerga | 5 |
| - Zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria | 6 |

»»»» **SARRERA**

Dokumentu honetan IGEentzako betebeharrak fiskal ohikoenak jasotzen dira, gure kasuan nahitaez bete beharrekoak direnak.

Betebeharrak garaiz eta epean betetzen ez baditugu, administrazio publikoei eskatzen dizkiegun dirulaguntzak ukatu diezazkigukete.

»»»» **GARRANTZITSUA**

GARRANTZITSUA Bizkaiko Ogasun Publikoaren izapide fiskalari (eta beste edozein administrazio publikorekiko)

- IGEaren izenean ziurtagiri elektronikoa izatea:

IZENPE

<https://www.izenpe.eus/certificado-de-representante-de-entidad-y-entidad-sin-personalidad-juridica/webize00-cnempresas/es/>

FNMT

<https://www.sede.fnmt.gob.es/certificados/certificado-de-representante/persona-juridica>

- **BILA** plataforma deskargatu zure ordenagailuan

https://www.bizkaia.eus/Ogasuna/software/descargar_instalar.asp?Idioma=CA&Tem_Codigo=10260&dpto_biz=5



036 EREDUA - ZENTSU EREDUA

Estatutuetan datuak aldatuz gero, IFK txartela berritzeko aurkeztu behar den dokumentua da (izena, helbidea, etab.), edo, txartela galduz gero, berria eskatzeko.

Informazioa eta eredia:

https://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?textomodelo=036&idioma=CA&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5|3587|2093

Tramitazio telematikoa/aurkezpena: urteko edozein unetan.



347 EREDUA - HIRUGARRENEKIKO URTEKO ERAGIKETEN AITORPENA (URTARRILETIK ABENDURA)

Urte natural batean, IGEak enpresa, elkarte edo langile autonomo bati ordaindutako fakturen batura 3.005,06 €-tik gorakoa bada, nahitaezkoa da informazio-aitorpen hau aurkeztea, Ogasunari inolako ordainketarik egin beharrik gabe.

Informazioa eta eredia:

http://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?textomodelo=347&idioma=CA&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5|3587|2093

Tramitazio telematikoa/aurkezpena: urtekoa, otsailaren 1etik 28ra.



110 EREDUA - LAN ETEKINEN GAINEN ATXIKIPENAK

IGEak jardueraren bat giteko eprofesional autonomoren bat kontratatzen duenean, fakturan kopuru bat agertu behar da PFEZ atxikipen gisa (% 7 edo % 15), eta kopuru hori ez diogu pertsona horri ordainduko, Ogasunari baizik. Atxikipen hori negoziatzina eta nahitaezkoa da; izan ere, Ogasunak ikuskatzen badu, elkarteak du atxikipena sartzeko ardura, eta ez profesionalak.

Informazioa eta eredia:

https://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?textomodelo=110&idioma=CA&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5%7C3587%7C2093

Tramitazio telematikoa/aurkezpena: hiru hilabetekoa

Elkarteak Bizkaiko Foru Ogasunean sartu behar du atxikitako zenbateko hori, 110 ereduaren araberako hiruhileko natural bakoitzaren mugaegunean (apirilaren, uztailaren, urriaren eta urtarrilaren 25ean).



190 EREDUA - LAN-ETEKINEN GAINEN ATXIKIPENAK

IGEak 110 eredia aurkeztu badu, 190 eredia ere aurkeztu beharko du. Hau, aurreko urteko informazio laburpena da.

Aurreko urtean 110 ereduan aitortutako etekinen eta atxikipenen berri emango dugu.

Eredu hori aurkeztu ondoren, profesional autonomoari eman beharreko 10T lortzen da.

Gogoratu 190eredua aurkeztean, azken hiruhileko 110 eredia ere aurkeztu beharko dela (urria, azaroa, abendua).

Informazioa eta dokumentuak:

https://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?textomodelo=190&idioma=CA&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5%7C3587%7C2093

Tramitazio telematikoa/aurkezpena: urterokoa, urtarrilaren 1etik 31ra



200 EREDUA - SOZIETATE ZERGA

11/2013 FORU ARAUA, abenduaren 5tekoa, sozietate zerga (BOB abenduak 13) "Eguneratuta: 01/01/2019"

Sozietate Zerga (SZ) enpresak eta persona juridikoek ordaintzen dutena da (entitateak, elkarteak, fundazioak...). Urteko irabazien arabera ordaintzen dute, hau da, izandako gastuak diru-sarrerei kenduta lortzen den emaitzaren arabera.

Aurkezteko betebeharra: 11 eta 12 artikulua

Foru Arau honetako 12. artikuluko 2. paragrafoan aipatzen diren zergadunek errenta guztiak aitortu beharko dituzte, salbuetsiak eta salbuetsi gabeak. Hala ere, zergadun horiek ez dute aitortpena aurkeztu beharrik izango honako baldintza hauek betetzen badituzte:

- Guztizko diru-sarrerak urtean 100.000 euro baino gehiagokoak ez izatea
- Atxikipenaren mende dauden eta salbuetsita ez dauden errentei dagozkien diru-sarrerak urtean 2.000 eurotik gorakoak ez izatea
- Lortzen dituzten salbuetsi gabeko errenta guztiak atxikipenaren mende egotea

Zati batean salbuetsita dauden erakundeak. 38. artikulua

Foru Arau honetako 12. artikuluko 2. aipatzen diren eta partzialki salbuetsita dauden erakundeak (Foru Arau honetako 38. artikuluan aurreikusitako moduan zergatik partzialki salbuetsita egongo dira):

a) Irabazi-asmorik gabeko erakunde eta instituzioak, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgorako zerga-pizgarriei buruzko Foru Aravan ezarritako zerga-araubidea baliatzeko baldintzak betetzen ez dituztenak.

Honako errenta hauek ez dira zerga-oinarrian sartuko:

- Sozietatearen helburu diren jarduerak egitetik datozen errentak. Sozietatearen xedea jarduera multzo bat da, eta jarduera horiek gauzatzeko eratu zen sozietatea, eskubide eta betebeharren subjektu gisa; jarduera horren bidez, helburu komun jakin bat lortu nahi da bazkide guztientzat edo helburu espezifikoa bat.
- Irabazizko eskuratzetatik eta eskualdaketetatik eratorritako errentak, baldin eta batzuk eta besteak beren xede edo helburu espezifikoa betetz lortu edo egiten badira.
- Helburu espezifikoa gauzatzeari lotutako ondasunen kostu bidezko eskualdaketan agerian jartzen diren errentak, lortutako zenbatekoa xede edo helburu horrekin lotutako inbertsio berrietara bideratzen denean.



MODELO 200 - IMPUESTO DE SOCIEDADES

Salbuespenen laburpena:

- Dohaintak SALBUETSI
- Bazkideen kuotak SALBUETSI
- Dirulaguntzak SALBUETSI
- Helburu sozialarekin bat datozen interes orokorreko jardueren errentak SALBUETSI (Sozietatearen xedea honako hau da: eskubide eta betebeharren subjektu gisa eratu zen sozietatea, eta helburu komun jakin bat lortu nahi da bazkide guztientzat)
- Helburu sozialarekin bat ez datozen jardueren errentak EZ SALBUETSITA

Informazio guztia eta dokumentuak:

[https://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?](https://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?familia=003&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5%7C3587%7C2093&Idioma=CA)

[familia=003&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5%7C3587%7C2093&Idioma=CA](https://www.bizkaia.eus/ogasuna/ereduak/modelos.asp?familia=003&acceptar=Buscar&Tem_Codigo=2093&dpto_biz=5&codpath_biz=5%7C3587%7C2093&Idioma=CA)

Tramitazio telematikoa/aurkezpena: urtekoa, uztailaren 1etik 25era



ZERGA-BETEBEHARRAK EGUNEAN DITUELA EGIAZTATZEN DUEN ZIURTAGIRIA

Eskatu ahal digute dirulaguntzetarako.

Zer ziurtatzen du?

- Derrigorrezko zerga-aitorpenak egunean ditugula.
- Ez dugula zerga-zorrik betearazpen-aldian, edo, baldin baditugu, geroratuta, zatituta edo etenda daudela.

Nola eskatu ziurtagiria?

- Eskaera/tramitazio telematikoa: BizkaiBai webgunean
- Bizkaiko Foru Aldundia - Diputación Foral de Bizkaia